

**Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala****22. zenbakia****Data 1999-02-04****1598 orria****7 UDAL ADMINISTRAZIOA  
ARETXABALETAKO UDALA****Enpresa ekimen berrietarako udal ordenantzak****ARETXABALETAKO UDALA***Iragarkia*

Mila bederatzehun eta laurogeita hemeretziko urtarrilaren hemezortzian izandako osoko bilkuran enpresen ekimenak sustatzeko ordenantza behin betikoz onartu zen.

*Enpresaritza ekimen berriei laguntzeko udal ordenantza.*

**ARRAZOIEN AZALPENA**

Aretxabaletako Udalak, Enpresa Sustapena eta Enplegu zinegotzaren bidez, azken urte hauetan, Aretxabaletako Udalerrian enpresa berriak sortu eta kokatzen laguntzeko eta giza baliabideak kualifikatzeko iharduera ezberdinak garatu ditu. Adierazitako iharduerak, Deba Goreneko Mankomunitatearen Garapen Ekonomikorako Lurralde Agentzia Zerbitzuaren bidez garatu dira, edo Aretxabaletako Industrialdea S.A. eta Aretxabaletako Institutua bezalako erakundekin elkarlanean.

Jakinik, enpresa ertain eta txikien sortzea dela, gure herriko enplegu eta aberastasuna sortzeko zutabeetako bat, beharrezkoa irizten da enpresa berrietarako laguntza politika zehatzak artikulatzea.

Beraz, enplegu ekimen lokalak izango diren, eta teknologia eta gestio sistema berriak bereganatuko dituzten enpresa berrien sortzea sustatu nahi da, adierazitako teknologien erabileratik datozen merkatuko aukeraz baliatuz.

Izaera berritzailea izango duten enpresaritza proiektu berri hauek laguntzak behar dituzte, eta bereziki neurri txikiko proiektuetarako, hauek baitira dituzten ezaugarriengatik merkatuan sartzeko eragozpen handienak dituztenak.

Ordenantza honek, enpresen berezko baliabideak hobetzera zuzendutako laguntzak artikulatu nahi ditu, ondorioz, enpresa berriaren abian jartzea arrakastatsua izan dadin hasierako finantza egoera sendoagoa lortzeko.

*1. artikulua. Ordenantzaren helburuak.*

Ordenantza honen helburu orokorrak honako hauek lirateke:

Enpresa berritzaileen abian jartzea erraztea.

Enpresa berrien bideragarritasuna gehitzea.

Lanpostuen sortzea sustatzea.

Sortu berri diren enpresen berezko baliabideak hobetzea.

Enpresa dibertsifikatzea sustatzea.

## *2.artikulua.Onuradunek bete beharreko baldintzak.*

Ordenantza honetan jasota dauden onurak, ondoren adieraziko diren betebeharrak betetzen dituzten enpresak jaso ahal izango dituzte:

EMSL, EMSA, edo Koop. Elkartearen izaera juridikoa hartzea.

Eratu zirenetik gehienez ere urte beteko antzinasuna duten, enpresa sortu berriak izatea.

Eskaera egiten den egunean, Aretxabaletan erroldatuak egongo diren pertsonak (gutxienez erdia baino gehiago) sustatzea.

Eskaera egiten den egunean, gutxienez bost langileko plantila edukitzea eta 50 langile baino gehiago ez izatea, gutxienez langileen erdiak Aretxabaletan erroldatuta egon behar dutelarik.

Gipuzkoako INEMen Lurralde Zuzendaritzak Enplegu Ekimen Lokal gisa izendatuak izatea.

Deba Garaiko Mankomunitatearen Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentziak lagundutakoak izatea.

Beste enpresa batzuekiko subsidiarioak ez izatea eta era berean enpresa partehartzailerik ez izatea.

Zerga eta Gizarte Segurantzaren betebeharren betetzean egunera egotea.

## *3.artikulua.Dirulaguntza xede izango den Egitatea.*

Dirulagunduko diren egitateak izango dira: Ordenantza onartzen den momentutik aurrera eratuko diren enpresa proiektuak, edo ordenantza onartu baino, gehienez ere urte bete lehenago eratu direnak eta elementu berritzaileak izateaz gain, bideragarritasun itxaropenak dituztenak, ordenantza honetako oinarrizko helburuak lagunduz.

EMSL, EMSA, edo Koop. Elkartearen izaera juridikoa hartuz, enpresa berrien sustatzaile izango diren pertsona juridikoak. Sustatuko diren Enpresa berri horiek, ordea ez dira nolana hikoak izan beharko, alderantziz Aretxabaletako Udalak Interes Sozioekonomikoko Enpresa Ekimen gisa hartu beharko ditu duten izaera berritzailegatik, aberastasun eta enplegu sortzaile izateagatik.

## *4.artikulua.Dirulaguntza xede izango diren kontzeptuak.*

Ordenantza honen babesean dirulaguntza xede izango dira ondoren adieraziko diren gastu eta inbertsio kontzeptuak:

1. Enpresa berriaren gestore eta teknikarien prestakuntza gastuak enpresa sortu zenetik kontatzen hasi eta urte bete bitartekoak.
2. Enpresa berriaren gerentearen soldata gastuak, hura funtzionamenduan hasten den momentutik kontatzen hasi eta sei hilabetetan zehar.
3. Enpresa berriak egindako inbertsioak ekoizpen ekipoetan.
4. Eraketa eta abian jartze gastuak.

## *5.artikulua.Dirulaguntzak.*

Aurreikusten diren onura eta dirulaguntzak honetan zehazten dira.

Itzuli beharrik izango ez den, ordenantza honetako 4. artukuluko 1 eta 2 puntuetan adierazitako gastuen %90a arteko dirulaguntza, 1.000.000 pztako mugarekin.

Itzuli beharrik izango ez den Aretxabaletako Udalak onartuko dituen ekoizpen ekipoetan egindako inbertsioen %20a arteko dirulaguntza, 4.000.000 pztako mugarekin.

*Itzuli beharrik izango ez den Enpresaren eraketa eta abian jartzearen gastuentzako dirulaguntza, gehienez ere 1.000.000 pzt. arte.*

*6.artikulua.Dirulaguntzak emateko jarraitu beharreko prozedura.*

Enpresek Aretxabaletako Udalari eskatu ahal izango diote, Interes Sozioekonomikoko Enpresa Ekimen izendapena. Adierazitako eskaera hori Udalbatzarrak aztertu eta ebatziko du. Aipatutako izendapena lortuz gero, enpresek ordenantza honetan jasotako dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte. Dirulaguntzen emakida Enpresa Sustapenerako Erizpen Batzordearen diktamenaren ondoren erabakiko da, Udalbatzarraren akordioaren bidez.

*7.artikulua.Aurkeztu beharreko dokumentazioa.*

A.Interes Sozioekonomikoko Enpresa ekimenaren izendapenerako:

Eraketa eskriturak, gutxienez dagokion errejistroan inskribatzeko eskariarekin.

Sustatzaileen historia profesional eta empresariala.

Identifikazio Fiskalaren Kodearen kopia.

Bideragarritasun Plana. Honek Ordenantza honetako 1. Eranskinean jasotako zehaztapenak edukiko ditu gutxienez.

I.E.Z. n Alta.

Gizarte Segurantzari egindako azken deklarazio-likidazioa. TC-1 eta TC-2.

Enplegu Ekimen Lokalaren izendapena, INEMek emandakoa.

Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentziaren Ziurtagiria. Bertan enpresari emandako laguntzak agertu beharko dira.

Foru Ogasunean eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketetan egunera egotearen ziurtagiriak.

B.Dirulaguntzak eskatzeko:

Enpresa berriaren teknikari eta gestoreen prestakuntzan izandako gastuen frogagiriak.

Funtzionamendu lehen sei hilabetetan egindako enpresa berriaren gerentearen soldata ordainketen frogagiriak.

Enpresa berrian egindako aktibo finko ekoizleetan aurrera eramandako inbertsioen frogagiriak.

Eraketa eta abian jartze gastuen frogagiriak.

Onuradun gertatzen den enpresaren aldetik, Aretxabaletako Udalak bultzatzen dituzten ekimen berriei laguntzeko konpromezua, beti ere Udalak ekimen horietarako laguntza eskatzen badiu.

Enpresaren ordezkari legalak sinatutako dokumentua. Bertan enpresak jaso ditzakeen dirulaguntzak itzultzeko obligazioa bere gain hartuko du, baldin eta Ordenantza honetako 8. Artikuluan jasotzen diren dirulaguntzak itzultzeko arrazoiren batean erortzen bada.

*8.artikulua.Dirulaguntzak itzultzeko arrazoiak.*

Emandako dirulaguntzak itzultzeko arrazoiak izango dira:

Dirulaguntzak emateko erabakia hartu zenetik kontaktzen hasitako hiru (3) urteko epean, enpresa hori Aretxabaletako Udalerrian ez ezartzea/kokatzea.

Funtzionamendu hiru lehen urtetan plantilaren gutxitzea, bost langile baino gutxiagorekin geratuz.

Dirulaguntza ematen zaion momentutik kontaktzen hasitako, urte bakoitzeko lehen sei hilabetearen barnean irabazi eta galeren balantze eta kontuak ez aurkeztea.

Hiru urteren epean, onuradun gertatu den enpresari Aretxabaletako Udalak enpresaritza ekimen berrien abian jartzea laguntzeko, eskatutako laguntzak ukatzea.

*9.artikulua.Urteko aurrekontuzko partidaren izendapena.*

Aretxabaletako Udalak urteko aurrekontuzko partida izendatuko du, Ordenantza honen babesean jaso litezkeen eskariei aurre egin ahal izateko.

*10.artikulua.Indarrean sartzeta.*

Ordenantza hau indarrean sartuko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan aurreikusitako epea amaitzen denean.

Aretxabaletan, 1999ko urtarrilaren 21a.—Alkateak.

(92) (939)

#### 1. ERANSKINA

### BIDERAGARRITASUN PLANAREN EDUKI MINIMOAK

Produktu edo zerbitzuaren definizio xehatua.

Konpetentziatik nabarmentzen duten berezitasun eta berrikuntzak.

Ekoizpen prozesuaren deskribapena.

Ezaugarri teknikoak.

Betetzen dituen beharrak, eta interesaturik leudekeen bezero motak.

Dagoeneko merkatuan dauden produktu edo zerbitzuekiko abantailak.

Aurreikusitako hedadura/hedapena geografikoa.

Hasierako plantila, lanpostuak. Aurreikusitako bilakaera.

Merkatuaren aurreikusteko moduko bilakaera.

Banaketa bideak.

Enpresa lehiakideen identifikazioa.

Enpresa berriaren eta bere produktuen sendotasun eta ahuleziak.

Produktuaren garapenaren denboraldiko plangintza.

Proiektua aurrera eramateko beharrezko gastuen ustezko aurrekontua.

Beharrezko litzatekeen beste edozein informazio osagarri: ekonomiko-finantzarioa, soziala, etab.